



FESTA AURREKO EKITALDIA

2000. urtean egin zen lehen aldiz, Santio jaien aurrakari, musika eta dantzaz beteriko jaialdi hau. Aurtén ere izango dugu antzeko beste jaialdi batez gozatzeko parada, jaien aurreko asteburuan hain zuzen ere.

TXOXBERRI FESTA

Aurtengoan bigarren aldiz egin da jada ohitura bihurtzen ari den jaialdi hau. Urtarrilaren 14, 15 eta 16an egin zen. Joseba Barandiaran plazan kokatutako karpa erraldoian sagardo-dastaketa, musikaz gozatutako zenbait bazkari eta afari eta beste hainbat ikuskizun izan ziren bertako eta kanpokoek gozagarri.



KALDEREROAK

Otsailean, azken hamar urteetan bezala, kaldereroak iritsi ziren Astigarragara, Hungariatik abiatuta egindako bidaia nekezaren ondoren. Eskerrak ematekoa da 10 urtez hutsik egin gabe egitec bisita, bide batez inauteriak hurbil ditugula iragartzeko.